



BARREN
TOKIKOM

Krosaren egun handia





ESKERRIK ASKO, ELGOIBAR!

Ederra izan da!

Giro berezia sortu zen Kalegoen plazan abenduaren 24an. Eguraldia lagun genuela, Kalegoen plaza jendez bete zen. Olentzero eta Mari Domingi, taloak eta edariak, eta duela bost urte inguru martxan jarri genuen Elgoibarko Izarraren aldeko tonbola. Gero eta estimazio handiagoa duen tonbola. Zuei esker prestatzen dugun tonbola. Erregaluak ematen dituzuenoi esker. Erregaluak erosteko dirua ematen diguzuen enpresei esker. Boletoa erostera etortzen zaretuenoi esker. Antolakuntza-lanetan parte hartzen eta laguntzen duzuenoi esker. Handia da Elgoibarko Izarraren alde egiten duzuen, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu, bene-benetan, egiten duzuenagatik. Eta barkamena ere eskatu nahi dizuegu tonbolako erregaluak jasotzerakoan arazoren bat izan duzuenoi; dena ez da beti nahi bezala iriteten. Eskerrik asko, Elgoibar eta, zuek nahi baduzue, datorren urtean ere Kalegoen plazan bilduko gara abenduaren 24an.

2. Estankoa / 40-15 Tenis Elkarte / AEK euskaltegia / Agurtzane ileapaindegia / Ainara Arnaiz / Aldaz hartz klinika / Alire estetika / Balcabaos Alkorta / Altzola Berazeta baserría / Amagoia gozo denda / Amaia Mendikute fruta denda / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Ander Errasti / Andres Alberdi / Angel Ugarteburu / Anua errektifikatuak / Aranburu bitxi denda / Arauri / Aerotxuri S.L. / Arilan mekanizatu zentrua / Arkupe / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Asiatorr / Aterpe / Azkue argazkiak / Azpi's Bags / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hartz klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika Banaketa / Beristain mekanizatuak / Bitxibitxi / Bitxibizibitxi / BM Supermerkatuak / Burgoa Somoa arrandegia / Casa Astigarraga kirolak / C.D. Elgoibar / Caixabank / Caramel Goxokiak / Castrillejo estankoa / Cometel / Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak / Danele Sarrugarte / DanobatGroup / Dantzian.eus / Darama bitxiak / Denetik bazar txinatarrak / Doña Mercedes / Ecnarro lantzeria / Ecolaundry / Egondo / Egur arte tailerra / Ehun Kilo / EITB / Eizagirre okindegia / Elena ileapaindegia / El Gautxo / Elgoibar1936 / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Gazte Asanblada / Elgoibarko Udala / Emilia Nogales / Eroski Maala / Errigora / Esther Ibarguren / Etxean Gozo / Etxekit / Etxepe / Etxe-Tar / Euskaltzaleon Topagunea / Evoka Shoes / Exclusivas Pelegrin / Fadedek ileapaindegia / Farmalau / Ferpi modak / Fotero / G&M jantzi denda / Gabi jatetxea / Gaiandu / Garate jantzi denda / Garitaonandia botika / Garua yoga studio / Gararock / Gemma Monreal / Go Bike / Gorostiza liburu denda / Gotzon Garate Udal Liburutegia / Grupo Unceta / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hik Hasi / Hurbil informatika-Mr.Micro / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea / Idama / Ikus optika / Imanol Agirretxe / IMH Museoa / Industrias Metalak / Iñigo Azpiroz / Ipintza margoak / Iratxe terapiak / Iria umeen arropa denda / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Iriondo taberna / Isleder / Iturri / Jai Alai / Jairo argazki estudioa / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Javier Elorza / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jose Alberto Eguren / Jose Antonio ileapaindegia / Julen Zabaleta / Juli Arregi / Justo Arriola / Kala loradenda / Kalamua Guraso Elkarte / Karakate jatetxea / Karkizano / Kemen belardenda / Kideok S.L. / Kilimon Trail / King-Kong / Kiroldegiko taberna / Klitz / Koldo Lizarralde / Kopilan / Kutxabank / Laboral Kutxa / Lagun Taldea Txirrindulari Elkarte / Lagunak koltxoi denda / Lanbroa / Larre / Lerun jatetxea / Lurdes ileapaindegia / Magi Bitxiak / Magus / Maite Maiora / Maite Rementeria / Mahahmana / Mapfre / Marian fruta denda / Markel Bergara / Mausitxa / Mecanizados Mancisidor / Mekanosa / Membrillera eskulanak / Meraki ileapaindegia / Merino konponketak / MG burdindegia / Mikel Aingeru Goenaga / Mintxeta Atletismo Taldea / Millar Bire / Miquel mertzeria / Moma jantzi-denda / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Muruamendiaraz / Mutua General de Seguros / Nalai oinetakoak / Napoka Iria / Nuvar / Oin Berri podologia zentroa / Olaia Martinez estetika / Ongi iturgintza / Oihane Osoro interiorismoa / Opel Giauto / Orio Arraunketa Elkarte / Otzarreta harategia / Pagoaga iturgintza / Patxi harategia / Pikumek / Pirritx, Porrotx eta Marimotots / Pitxintxu / Rural Kutxa / Sara fruta denda / S.D Eibar / Sahatzu harategia / Salento pizzeria / San Roke kafetegia / Sanlo / Sara jantzi-denda / Screaminguy Records / Sigma Jatetxea / Sinuöse / Soarte argazkiak / Sugar / Suministros Evia / Surya belardenda / Swisslan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tanta taberna / Taupada Antzetzaldea / TAZEBAEZ s.coop. / Telleria / Txankakua / Txarriduna jatetxea / Txerra Rodriguez / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Udal Musika Banda / Unanue mertzeria / Urkiola Taberna / Usua terraza / Uxue Alberdi / Uzuri / Xarlem Creations / Yudego farmazia / Zalao Arnaiz / Zazpi informatika / Ziarda harategia / Zortziko ezti / Zubi ondo xakea / Zu+Ni / Zuhaitz Gurrutxaga / ...



ANDER SORALUZE

Informatikaria



Debalde irakurri

Book Reader-ek esaterako. Erraztasuna eta kostua- ren inguruan, aukera oso in- teresgarria da copyrighta galdu duten lanak lortzea. Herralde bakoitzeko legedia- ren arabera aldagarria bada ere, "lan intelektualak", argitalpen edo autorea hiltzen denetik zenbait ur- tetara, domeinu publikora pasatzen dira. Aurten Espainian, adibidez, 1938an hil- dako autoreen lanak publiko izatera pa- satu dira; Estatu Batuetan, 1923an argitaratutakoak etab.

Hau baliatuz, zenbait webgunek esku- ragarri jartzen dituzte lan guzti horiek.

***"Euskadiko Irakurketa
Sare Publikoko bazkideek
eLiburutegia erabil dezakete,
1.400 lan baino gehiago
euskaraz dituen"***

Hauetako batzuk Internet Archive, Domi- nio Público edo Hathi Trust izan daitezke; Project Gutenberg-ek 58.000 liburu baino gehiago eskaintzen ditu hainbat for- matutan; Standard Ebooks-ek bestalde, aurrekotik liburuak hartu eta itxura hobe- tuta eskaintzen ditu.

LibriVox-ek, liburuez gain, 'audiolibu- ruak' ere eskaintzen ditu, edozein tele- fono, ordenagailu, mp3, iPod edo CDtan entzuteko. Haurrentzat "International Chil- dren's Digital Library: ICDL" aukera ona izan daiteke.

Euskarak ere badu bere lekutxo mundu honetan: *Armiarma.eus* edo *Book- tegi.eus* webgunek esaterako. Azken ho- netan, norberak sortutakoa debalde argitaratzeko aukera ere badago. Biblio- teca Digital Hispánica-k ere 205 lan ditu euskaraz.

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko bazkideek eliburutegia erabiltzeko aukera daukate, 1.400 lan baino gehiago eus- karaz eskuragarri dauzkana.

U rte berri on denoi! Azken urteetan formatu elektronikoan irakurtzen dut gehien, sakeleko telefonoan (pisu txikia, denbora guztian gainean izanda edozein tarte erabili dezakedala irakurtzeko, testuak lortzeko erraztasuna, kostua etab. direla eta). Batzutan, telefo- noari begira ezin banaiz egon (gida- tzen, kirola egiten), telefonoari liburu bat irakur diezadan eskatzen diot eta irriti/aurikular bidez entzuten dut. Au- kera hau hainbat aplikaziok ematen dute; Google Play Books-ek eta Aldiko



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik ira- garkiari lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adie- rozitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhua Ando- negi **KAZETARIAK** Ainhua Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhua Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UOLA
KLUBA

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2000

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZAPLANA, EDOA MUNDUA ALDREBES

Hori da euskal presoekin gertatzen ari dena. Espainiako Zigor Kodeko 91. artikulua dio gaixotasun larri eta sendaezina duen preso baten bizitza "arrisku nabarian" badago, baldintzapean aske utzi ahal duela epaileak edo auzitegiak. PPK instrukzio bat ezarri zuen 2017ko otsailan: kaleratzea emateko, gaitz sendaezina zuen presoari gutxienez bi hilabete bizi iragarri beharko ziotela medikuek. Geroztik, ez da euskal preso gaixorik geratu aske baldintzapean.

Eduardo Zaplana ministroa izan zen PPren gobernuan, eta, egun, espetxerata dago, ustelkeria egotzita. Leuzemia du. Orain, gobernuak aldatu egin du Instrukzio hori, erabakia Espetxeko zuzendariaren esku uzten duelarik, honek preso en egoeraz erabaki dezan. PPK presioa egin du aldaketa eman dadin, eta lortu du. Espero dezagun Instrukzio berri hori larri gaixo dauden 21 euskal preso en ere aplikatzea eta behingoz preso en osasunarekin jokatzeari uztea Madrildo gobernuak.

Bihar Bilbon egingo den manifestazioan euskal preso politikoen eskubiak errespetatuak izan daitezela eskatuko dugu. Eta baita beraien sendeen ere. Hasteko, sakabanaketa bukatzea. Joan zen asteartean Garikoitz Aspiazuren bikotekidea eta bien umeak istripua izan zuten, Arleseko espetxetik bueltan (665 km). Animatu, eta parte hartu!

SARE Elgoibar

► ALBISTE ONA ESKUALDERAKO

Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoak Mendaron izango du bere egoitza. Gure herriko Kurutz Gain industrialdeak hartuko du Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Euskadiko Zentro Teknologikoek osatu duten erakundea. Eusko Jaurlaritzako

Garapen Ekonomikorako Sailburua den Arantza Tapiak esan zuen bezala, elkarlanaren bidez Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako sarea osatzen duten eragileen efizientzia eta emaitzak hobetzeko helburuarekin jaio da.

Elkarlana eta osagarritasuna Euskadik herri bezala dituen erronkei aurre egiteko ezinbestekoak dira, baita herri eta eskualde mailan ere.

Herri ardurak ditugunok, askotan gure herriaren alde egiterakoan, gurea beste herriak baino hobea dela esateko tentazioa izaten dugu, gehienetan lehia zintzoan, baina beste batzutan besteekiko mespretxua ezkutatu.

Norberarentzat errespetua eskatzen duenak besteekiko errespetua erakutsi behar du, eta ardua publikoak ditugunok herri honen onerako diren ekimenen alde egin behar dugu, inora ez daramaten eztabaida antzuetan erori gabe.

Euzko Alderdi Jeltzaleak apustu garbia egiten du lurralde orekaren alde, herri bat handiagoa edo txikiagoa den ez da erabakiorra bertan egoitza bat edo enpresa bat kokatzeko.

Gure bailarako edozein herritan garatzen diren egitasmo edo enpresak, Eibarren zein beste herri batean, onak dira denontzako.

Dudarik gabe, albiste ona da gure eskualdearentzat, Gipuzkoarentzat eta Euskadirentzat.

Irene Berasaluze, EAJren Zinegotzia

Mendaroko udaletxean eta legebiltzarkidea

► ERRESIDENTZETAKO BORROKA, HAUTESKUNDEAK

Ohar honen bidez Gipuzkoako Erresidentzietako langileek lan baldintza hobeen eta zerbitzuaren kalitate hobe baten alde daramaten borroka gogora ekarri nahi dut. Abenduan izan dituzte azken greba egunak (hiru hilabete daramate borrokan).

Elgoibarren 65 urtetik gorakoak %22 (2.541) baino gehiago dira eta 80 urtetik gorakoak, 900etik gora. Ez dago esan beharrik gaurko gizartean zaharren zaintza lehen mailako gaia bihurtu dela eta zaintza horren antolaketa gai politiko nagusietakoa. Baina, badakigu gaurko agintari politikoen ildo zein den gaiaren aurrean: dirua eskaini enpresa partikular batzuei hortik nagoztoa atera dezaten. Jakina, nola lortzen da hori? Langileen lan-baldintzen kontura eta zerbitzu baldintza eskas batzuen kontura: jende gutxiren artean zaindu behar adineko mendeko asko, soldata oso bajeekin (kale garbiketako langileekin konparatuta %30 gutxiago irabazita), lanaldi gogorrek.

Diputazioak finantziatzen ditu enpresak %90ean, baina enpresen esku uzten du kontua. Sektoreko patronalak baldintzak berdindu nahi omen ditu. Sektoreko langileek, gehienak emakumeak, borroka egitera behartuta, sindikatuen esku. Zerbitzu minimo oso altuak ezartzen zaizkenez gainera, borrokaren eragina mugatu egiten zaie legez.

Nire galdera da: Non gaude herritarrok? Hau ez da langile zehatz horien arazoa bakarrik, zerbitzua hartu behar duten guztiena baizik, eta poltsa horretan gizarteko pertsona asko egon gaitetzke, gaur ez bada bihar. Herritarron arazoa da gaiak konponbide ona izatea.

Ildo horretan, eta kontuan hartuta aurrean hauteskundeak datozela, jakin beharko genuke zeintzuk diren alderdien proposamen eta iritzia honen gainean, ezta?. Ea bada.

Juan Mari Mendizabal Alberdi

Piriniotako burdina eta siderurgiari lotutako ondare industrialari buruzko erakusketa ibiltaria, Elgoibarren



Pirinioetako burdina eta siderugiari lotutako ondare industrialari buruzko erakusketa ibiltaria antolatu du Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa. Urtarrilaren 28tik otsailaren 10era arte egongo da erakusketa Elgoibarren, Makina Erremintaren Museoan, eta Andorrako Printzerria, Katalunia, Languedoc-Rosellon eta Akitaniako lurralde zeharkatuko ditu gero, inguru horietako industria eremu aipagarrienak erakusteko. Meategiak, txondorrak, burdinolak, langileen habitatak, burdinez egindako elementu arkitektonikoak edota eskultura garaikideak ezagutzeko aukera izango da. Elgoibarren, bisita gidaturako bi egun ere zehaztu dituzte. Bi saio egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz, urtarrilaren 31n biak. Euskarazkoa goizez izango da, 10:30ean, eta erdarazkoa, arratsaldean, 16:00etan. Ordubeteko iraupena izango dute bisita gidatuek, eta interesatuek izena eman behar dute aurrez, gehienez 20 lagunentzako lekua izango delako (Doan izango dira bisita-saioak). Harremanetarako: 943 748 456 / museoa@museoa.eus.

Proiektu honetan hainbat museo eta kultur zentrok parte hartu dute, kudeaketan, ikerketan eta hedapen lanak koordinatzen. Hona Euskal Herrikoak: Armagintzaren Museoa (Eibar), Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa (Elgoibar), Mirandaolako Burdinola eta Burdinaren Museoa (Legazpi), Burdinaren ibilbidea (Legazpi), Xillida lantoki (Legazpi), Paisaia Kulturala (Zerain), Mehatze Barrutia (Mutiloa), Ormaiztegiko Biaduktua (Ormaiztegi), Igartza (Beasain), Burdinbidearen Euskal Museoa (Azpeitia), Agorregiko Burdinola (Aia), Fanderia Errota (Errenteria), Arditurriko Meatze Gunea (Oizartzun) eta Irugurutzeta labeak (Irun).

Bestalde, otsailaren 27rako ekitaldi berezia antolatu dute Elgoibarko Makina Erremintaren Museoko arduradunek. 20 urte bete ditu museoak, eta ospatu egingo dute. 10:00etan izango da ekitaldia, IMHko areto nagusian, eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu bertan izango da, azken ordukorik ezean.

'Hazi hezi' aldizkaria eta opari bana jaioberrientzat

Etxeko heziketan laguntza eskaintzeko, *Hazi hezi* aldizkariaren erreportaje-sorta baten bilduma eta oparia jasoko dute Elgoibarko haur jaioberrien gurasoek aurten. Euskaraz Sailak urteak daramatza haurra izan berri duten gurasoei zuzendutako transmisio kanpaina antolatzen, eta kanpaina horren baitan lau euskarri erabiliko ditu Udalak aurten: batetik, haur jaioberriarengatik zorionak emateko eta euskaraz erabiltzeko edota ikasteko aholkua emateko gutuna bidaliko diete gurasoei, eta gutunean, euskaraz ikasteko dirulaguntzak ematen dituela gogoraraziko die Udalak. Diptikoa ere jasoko dute guraso berriek eta baita *Txantxariak Euskal Jolasen Bilduma* DVDa ere. Horri gehitu behar zaizkio orain *Hazi hezi* aldizkariaren bilduma berezia eta urtebeteteko harpidetza doan.

Elgoibar Ikastolako Gabonetako loterian, bueltakoa

Ikastolako Gabonetako loterian botatakoko jasotzea egokitu da. Kobratzeko, ikastolara bertara jo behar da, urtarrilaren 31a baino lehen. Ordutegia honako hau da: goizez, 8:30etik 9:30era eta 12:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 17:00etara.

Bihar Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa

Presoen eskubideen alde bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Mendaron. 17:00etan abiatuko da manifestazioa, eta 15:30ean irtengo da autobusa Mendarotik, estazioetik. Ikasleek eta langabetuek 2 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek, 5 euro. Aitzibeltzen erosi behar dira txartelak.



18,2 milioi euroko aurrekontua onartu du Elgoibarko Udalak, iaz baino %3 handiagoa

Udalbatzaren abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onartu zuten Elgoibarko Udalak aurtengo aurrekontua: 18.247.799,89 eurokoa. Hain zuzen ere, %3ko hazkunde izango du aurrekontuak, hazkunde apala 2017ko eta 2018ko aurrekontuek izan zutenarekin alderatuta. 2018an, %12koa izan zen igoera, hein handi batean, Aita Agirre eraikina birgaitzeko obregatik. 2019koetan, 4.227.287 euro jarriko ditu Udalak inbertsioetarako. EAJren eta PSE-EEren botoekin onartu ziren aurrekontuak, eta EHBilduko zinegotziek kontra bozkatu zuten.

Inbertsioen atalean, bi obra nagusi dira aipagarriak: Aita Agirre eraikina eta Olaizaga kiroldegiko igerilekua handitzeko obrak. Diru kopuru handiena igerilekua handitzeko proiekturako izango da: 1.000.000 bat euro. Urtarrilean hasiko dute lizitazioa eta obrak abuztu ondorenean hastea aurreikusten dute (14-16 hilabeteren barruan bukatu beharko lituzkete). Aita Agirrerri dagokionean, 2019ko aurrekontuan sartu dute azkeneko parte: 750.000 euro. Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziaren arabera, obrak martxa onean doaz eta okerrik ezean otsailaren azkeneko amaituta behar lukete. Hiru urteko obra da Aita Agirrekoa, eta guztira, 4 milioi euro inguruko kostua izan du. Epe luzerako obretan izaten dira aurreikusitakotik "desbiderapenak", direla ezarritako epeetan edo aurreikusitako diru-kopurutan, eta kasu honetan ere izan dira, baina "anekdotikoak". 2017ko udan hasi zituzten obrak eta 18 hilabeteko epean bukatzea aurreikusi zuten,

baina Arraizek zehaztu zuen pare bat hilabeteko atzerapena daramatela.

Bestelako inbertsio handien artean, hauek aipatu behar dira.

♦ **Arriagako industrialdearen urbanizazio lanak:** 585.000 euro. Argiztapena, asfaltua... aldatuko dituzte eta obrak fasea egingo dituzte.

♦ **Kaleen konponketa:** 250.000 euro. Asfaltatze lanak izango dira, hein handi batean. Urazandin zentratuko dira lan handienak, baina San Pedro kaleko eta Pedro Mugarutza bukaerako espaloiak ere konponduko dituzte. Era berean, Gabriel Krutzelaegiko barandak lixatu eta margotuko dituzte.

♦ **Umeentzako ur jolasak Mintxetan:** 250.000 euro. Mintxetako igerilekuetan umeentzako ur jolasen parkea jarriko dute.

♦ **Eraikinen erosketak:** 200.000 euro. Uparitzaga kaleko babes ofizialeko etxebizitzan azpiko lokalean eraikiko dute eguneko zentro berria, 30 lagunentzako lekuarekin. Gaur egun, 20 plaza daude beteta eta ez dago itxaron zerrendarik.

♦ **IMH ingurua urbanizatzeko lanak:** 60.000 euro. Tenis pista eta ingurua berrituko dituzte, aisialdi-gune bat sortuz.

♦ **Santa Klarako kantxaren urbanizazioa:** 40.000 euro.

♦ **Fatxadak berritzeko diru-laguntzak:** 75.000 euro. Iaz ere jaso zuten aurrekontuetan eta 2019rako ere jasoko dituzte. Deba ibaiako fatxadak konpontzeko diru-laguntzak dira, eta momentuz definitzeko badute ere, izan daiteke diru-laguntza hauek alde zaharreko etxebizitza guztiei zabalteza, alde zaharrean daudelako

behar gehien dituzten etxeak, isolamendu eskasena dutenak. Horretarako egon badaude Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernaren laguntzak, baina laguntza horiek osatu nahi ditu Udalak. 2018an, 16 laguntza eman zituzten.

♦ **Gazteentzako ohiko etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak:** 75.000 euro. 2018an, 14 lagunek eskatu zituzten, baina 15 onuradun izan ziren azkenean.

♦ **Parte-hartzea sustatzeko partida** ere izango da, 200.000 eurokoa. 2018an, zortzi proiektu bozkatzeko aukera eman zuen Udalak eta hiru hauek izan ziren bozkatuenak: bolatokiko parkearen urbanizatzea, Aizkorri eta Urazandi lotuko dituen oinezkoen pasealekua eta Bernardo Ezenarro kalearen urbanizatzea. Hiru proiektu horien aurrekontuaren batura 205.000 eurokoa da.

Udal kirol patronatua

Udal Kirol Patronatuak 618.237 euroko transferentzia jasoko du Udaletik aurten. Aurreko urteko ekarpenari %2,2ko igoera aplikatu diote, 2019ko ordenantza fiskaletan onartutako KPlaren igoerari dagokiona) eta hiru kontzeptu berri esleitu dizkiote: 12.000 euro C.D. Elgoibar liburutako, 12.000 euro San Bartolome pilota txapelketarako eta 60.000 euro Olaizaga eta Mintxeta igerilekuen konponketetarako. Guztira, 1.312.687 euroko aurrekontua izango du Patronatuak (%76ko autofinantziazioa du).

Hezkuntza

PSE-EEK egindako eskaerei erantzuna emanez, Ikastolari eta

Herri Eskolari zuznedutako diru-laguntzen irizpideak parekatuz egin du Udalak. PSE-EEK salatu izan du Herri Eskolak diru gutxiago jasotzen duela publikoa izanda. Aurten, ikasle kopuruaren arabera kalkulatu dituzte diru-laguntzak. Ikastolak 991 ikasle ditu, eta 41.000 euro jasoko ditu. Herri Eskolak aldiz, 526 ikasle ditu eta 21.762 euroko laguntza jasoko du, iaz baino 14.000 gehiago. Hala ere, diru-laguntza honen harira Udalak zehaztu du Herri Eskolak beste zeharkako laguntza batzuk eta zerbitzu batzuk ere jasotzen dituela: garbiketa-zerbitzua, inbertsioak, obrak, eta brigadako eta mankomunitatearen zerbitzuak, besteak beste.

Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Sailaren aurrekontuaren erdia baino gehiago, 570.000 euro, pertsona nagusiei eta zaintzaileei zuzenduta dago. Eguneko zentro berria zabaldu eta etxeko zerbitzua indartuko ditu Udalak, eta *Etxean bizi* proiektuari eutsi. 2018koan, etxeko zerbitzuaren aurrekontua 150.000 eurokoa izan zen, eta aurten 175.000 eurokoa izango da. Eta horri beste 30.000 gehitu behar zaizkio zaintzaileak zaintzen partidari dagozkionak. Bestalde, zerbitzu berri bat sortuko dute aurten: baztertze edo eskusio egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza tutelatua. 82.000 euro inguru daude inbertsioko kapituluan. Azken urteetan zerbitzu ezberdinak sortu dira, herri mailan nahiz bailaran. Elgoibarraren emergentziatarako bi etxebizitza daude, eta hirugarren bat egokituko dute aurten.

Aurrekontuak diseinatzeko prozesua gaitzetsi du EHBilduk, Udalak herritarren parte-hartzea "alboratu" eta udal taldeenari "oztopoak" jarri dizkiola arrazoituta

EHBilduk salatu du Udalak herritarren parte-hartzea "alboratu" eta udal taldeen parte-hartzeari "oztopoak" jarri dizkiola aurrekontuak onartzeko orduan. Erabilitako prozeduragatik kargu hartu dio EAJri, aurrekontuak aurkeztu zituztenetik onartzera oso egun gutxi tarte laga dutela arrazoituta, besteak beste. EHBilduren ekarpenak bost egitasmo edo arlotara mugatu dira. Batetik, aurrekontuak onartzeko prozedura "benetan irekia" izateko eskatu zuten, aurrekontu ezberdinak herriko sektore eta auzo guztietan aurkezteko eta ondoren ekarpenak egiteko bide ezberdinak emateko. Era berean, inbertsioen atal bat "herritarrek egindako proposamenekin" osatzea eskatu zuten.

Kultura alorrean salatu dute "inolako plangintza estrategikorik egin gabe" inbertitu dituela Udalak ia 5 milioi euro Aita Agirre Kulturgunean. Horren harira esan dute aurrez herriko kultur dinamikaren inguruko gogoeta sustatu eta kultura arloko lan-ildoak eta lehentasunak adostu behar zirela, "kulturak Elgoibarren izan dezakeen eragin estrategiko eta sozio-ekonomikoa sendotzeko". Horretarako, Kulturaren kontseilua sortzea

eskatu zuten, bai eta arlo ezberdinetako sormen prozesuak sustatzeko laguntza programa sortzea ere.

Etxebizitza politikaren inguruan, gaur Udalak gazteentzako duen laguntzen programa beste kolektibo batzuetara zabaltea eskatu zuten, eta baita hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu jartzeko laguntzak sortzea ere. Gizarte politiken alorrean, etxeko laguntza zerbitzua indartu eta hobetzeko eskatu zuten, eta baita dauden diru laguntzen berri emateko eta haiek eskuratzeko bideak azaltzeko komunikazio plan integrala martxan jartzeko. Horretarako guztirako beharrezko ikusten dute Gizarteratzearen aldeko mahaia sortzea, gizarte politikak konpartitzeko eta diseinatzeko foro hain zuzen ere. Hondakinen gaian, bestalde, Hondakinen Mahaiaren akordioan jasotako neurriak abiarazteko eskatu zuten: hau da, emaitzak hobetzeko neurri zuzentzaileak hartzeko, herrian konpostagailuak jartzeko eta ohiko eskuorri eta kartelez gain, balliabide ekonomiko eta teknikoak erabiltzeko praktika onak bultzatzeko.

Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoak Mendaron izango du egoitza

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek, SPRIk, zentro teknologikoez eta ikerketa kooperatiboko zentroek osatu duten erakundea da Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoa eta Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburuak abenduaren hondarretan zentro teknologikoetako arduradunei jakinarazi zenez, partzuergoak Mendaron izango du egoitza, Kurutz-Gain industrialdeko 10. zenbakian. Zentro teknologikoen lana ezagutarazi, enpresen arteko harremanak sendotu eta nazioartean nazio irudi bat zabaltzea ditu helburu nagusi partzuergoak. "Europako Batasunean berrikuntza maila handiko eskualdetzat ezagutzen da Euskadi eta posizio hori mantendu eta indartu nahi dugu. Eta pentsatzen dugu partzuergo honen bitartez bide egokia hartzen dugula", adierazi zuen martitzenean Arantxa Tapiak agerraldi publiko batean. Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoak Basque Research and Technology Alliance izena hartuko du, BRTA akronimoa. Aurreikusitakoaren arabera, BRTA Partzuergoa urteko lehen hiru hilabetekoan eratuko da. Hasierako aurrekontuari dagokionez, Administrazio Orokorrek 500.000 euroko ekarpena egingo du, SPRIk 100.000 euroko ekarpena, eta agente teknologikoez 400.000 euroko ekarpena.

100 urte bete ditu Fulgencia Etxanizek



Abenduaren 29an 100 urte bete zituen Fulgencia Etxanizek eta El-goibarko Udaleko ordezkarien lore-sorta jaso zuen urtebetetze egunean bertan. San Lazaro egoitzako egoiliarra da Etxaniz, eta hara joan zitzaizkion bisitan Ane Beitia alkatea eta Blanca Larrañaga Ongizate Sailko zinegotzia. Etxekoekin eta gertuko lagunekin ospatu zuen bere ehungarren urtemuga Etxanizek.

Podemosetik gogorarazi dute hil azkenera arteko epea dagoela zergen gaineko hobariak eskatzeko

Iazko azaroaren 12tik GAO on argitaratuta dago aurtengo zergen egutegia (Ikusi hemen: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/eus-ker-a/gao/2018/11/12/e1807437.htm>), baina hor ez dira zehazten kolektibo jakin batzuek jaso ditzatekeen hobariak. Horren harira Podemosetik gogorarazi dute urtarrilaren 31a arteko epea dagoela zergen gaineko hobariak eskatzeko. Herritarren Arretarako Zerbitzuan egin behar dira eskaerak.

Txankakuaren Gabonetako zozketako zenbaki saridunak

Txankakuak jakinarazi ditu Gabonetako zozketako zenbaki saridunak. Guztira, 1.800 euro banatuko ditu, 500 euroko bi bonotan eta 100 euroko zortzi bonotan.

500 euroko jasoko saria dutenak:

59.725 (Erreserbakoa: 20.447)

50.575 (Erreserbakoa: 39.107)

100 euroko saria jasoko dutenak:

53.677 (Erreserbakoa: 45.419)

99.194 (Erreserbakoa: 59.994)

83.636 (Erreserbakoa: 95.762)

59.205 (Erreserbakoa: 99.058)

54.615 (Erreserbakoa: 16.521)

44.455 (Erreserbakoa: 17.678)

43.355 (Erreserbakoa: 61.896)

71.443 (Erreserbakoa: 36.086)

Saridunek otsailaren 8a arteko epea dute saria jasotzeko.

Mendaroko Eguberrietako zozketako zenbaki saridunak

Herrian erostea sustatzeko Eguberrietako kanpainaren barruan 500 euro banatuko ditu Mendaroko Udalak. Hau dira zenbaki saridunak. 37.142 (10 euroko 25 bono), 61.776 (10 euroko 15 bono) eta 20.148 (10 euroko 10 bono). Urtarrilaren 18a arteko epea dago sariak jasotzeko.



Jesus Urizar Artolazabal

"Plaentxi"

2019ko urtarrilaren 7an hil zen, 69 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jesus Urizar Artolazabal

"Plaentxi"

2019ko urtarrilaren 7an hil zen.

**Hemeretzia hasi berritan
albistea hotz-hotzean
Jesus lagunak utzi gaitula
jakin dugu bat-batean.
Beti faltan botako zaitugu
Etxegiñaren taldean,
baina gurekin izango zara
betirako bihotzean.**

**Lagun eta abeslari,
beti leial taldeari.
Jarrai zazula beti gurekin,
zauden lekutik kantari.**



Julio Salegi Egaña

2018ko abenduaren 31n hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Isabel Amestoy Fernandez

2018ko abenduaren 27an hil zen.

**Ama eta amama zoragarria izan zara.
Beti irribarretsu, beti laguntzen, beti gurekin.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko, Isabel.**





Eguaztenean aurkeztu zuten krosa udaletxean, eta leku berean egingo diete atletei ongietorri ofiziala, zapatuan, 19:30ean.

Dena prest Mugertza kroserako

Munduko eta Europako txapelketetan 30 domina eskuratu dituzten atletak batuko dira domekan Mintxetan, 76. Mugertza krosera lehiatzeko. Diamond League txapelketa prestigiosua irabazi duten hiru atleta ere ekarriko ditu Mintxetak eta baita 3.000 metroko oztopo-lasterketako munduko errekorra jabea den Beatrice Chepkoech kenyarra ere. Aurtengo krosa antolatzeko ahaleginak eta diruak inoizko emakumezkoen lasterketa onena antolatzeko erabili dituztela nabarmendu dute antolatzaileek. Gizonezkoena atletismoko izar gazteen arteko lehia izango da. 20 urte bete ez dituzten hiru atleta afrikar dira faboritoak, tartean iazko irabazlea, Selemon Barega etiopiarra.

- ASIER ORBEA -

Mintxeta atletismo taldeko arduradun Zigor Diezek azaldu duenez, partaidetza errekorra hautsiko du aurtengo krosak, mila antxitikarik eman baitute izena (iaz 900 izan ziren), hamar lasterketatan parte hartzeko. "Horrenbeste korrikalariri lekua egitea gero eta zailagoa den arren, zerbaite ondo egiten ari garen seinalea ere bada atleta guztiak Mugertza krosera korrika egin nahi izatea", azaldu du. Kopuruaz gainera, kalitatea ere izango du Elgoibarko krosak, aurten ere goi mailako parte-hartzea izango duela aurreratu baitute antolatzaileek. Emakumezkoen lasterketak izango duen partaidetza nabarmendu dute bereziki. "Dominak eta garaipenak eskuratu dituzten atletak ekarri ditugu. Horetako bik, Hellen Obirik (Kenya, 1989) eta Beatrice Chepkoechek (Kenya, 1991), Diamond League txapelketa irabazi zuten iaz, eta Chepkoechek gainera 3.000 metroko oztopo-lasterketako munduko errekorra ezarri zuen 2018ko udan. Obirik, berriz, zilarrezko domina lortu zuen Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan; eta, iaz, bera izan zen azkarrena 5.000 metroko probetan. Bi atleta afrikar hauen goi maila egiaztatuta dagoela adierazi du Zigor Diezek. Obiri Elgoibarrera ekartzea asko kosta zaiela

aitortu du. "Ez ditu kros asko korritzen eta kosta zaigu Elgoibarrera ekartzea". Yasemin Can eta Stella Chesang ere kontratatu dituzte.

GAZTEEN ARTEKO LEHIA GIZONEZKOETAN

Gizonezkoen proban gaztetasunaren aldeko apostu argia egin dute. Proba irabazteko hiru faborito nagusiak, afrikarrak hirurak, ez dituzte 20 urte baino gehiago. Gazteak bai, baina ez ezezagunak. Garaipen garrantzitsuak lortutakoak dira hirurak. Selemon Barega (Etiopia, 2000) da adibiderik argiena. Aurrez beste hainbat atleta gazterekin gertatu den moduan, Baregak Elgoibarren eman zuen izan daitekeenaren berri, 75. Mugertza krosa irabazita. Kros denboraldia amaitu ostean, garaipen garrantzitsuak eskuratu zituen pistan ere. Diamond League txapelketa prestigiosua irabazi zuen eta bera izan zen urteko atletarik azkarrena 5.000 metroko lasterketan. Proba horretan bosgarren egin zuen Londresko Munduko Txapelketan. Baregak baino urte bat gehiago duen Rhonex Kipruto (Kenya, 1999) izango da proba irabazteko beste faborito argi bat. 2018an 20 urtez azpiko 10.000 metroko munduko txapelketa eta Afrikako Kros Tx-



pelketa irabazi zituen. "Ez ditu kros asko korritzen, baina Afrikan jokatu dituen ia guztiak irabazi ditu, horrek daukan zailtasunarekin. Martxoan jokatu da bi urtean behin egiten den Munduko Kros Txapelketa eta proba hori dute buruan atleta askok", zehaztu

du Zigor Diezek. Stanley Waitthaka (Kenya 2000) da proba irabazteko faboritoen artean dagoen hirugarren gaztea. Afrikako kros txapelketa txapelkunordea izan zen Kipuratoren atzetik eta Zornotzako Nazioarteko Krosa irabazi zuen Errege Egunean.

DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO SALTAKARIAK



SELEMON BAREGA

(Etiopia, 2000)

- ◆ 2018ko Mugertza Kroseko irabazlea.
- ◆ 5. postua Londresko Munduko Atletismo Txapelketan.
- ◆ Diamond League txapelketa irabazlea.



RHONEX KIPRUTO

(Kenya, 1999)


- ◆ 20 urtez azpiko Munduko Atletismo Txapelketako irabazlea, 10.000 metroko lasterketan.
- ◆ Afrikako Kros txapelduna 2018an.



STANLEY WAITHAKA

(Kenya, 2000)


- ◆ 20 urtez azpiko munduko txapelkunordea 2018an.
- ◆ Afrikako Kros Txapelketan txapelkunordea 2018an.
- ◆ Zornotzako Nazioarteko kroseko irabazlea 2019an.



ABDELAATI IGIDER

(Maroko, 1987)


- ◆ 1.500 metroko lasterketan hainbat domina irabazitakoa.
- ◆ Brontzezko domina Londresko Olinpiar Jokoetan eta Pekinoko Munduko Txapelketan.
- ◆ 2018. urteko denborarik onena eta inoizko bederatzigarren denbora onena.



HELLEN OBIRI

(Kenya, 1989)

- ◆ 2017an Munduko txapelduna 5.000 metroan.
- ◆ 2016an zilarrezko domina Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan.
- ◆ 2018an azkarrena 5.000 metroan.
- ◆ 2018ko eta 2017ko Diamond League Txapelketak irabazi ditu.



BEATRICE CHEPKOECH

(Kenya, 1991)


- ◆ 3000 metroko oztopo-lasterketako munduko errekorra ezarri zuen 2018ko udan.
- ◆ Diamond League txapelketako irabazlea 3.000 metro oztopoetan.
- ◆ Laugarren postua lortu zuen Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan.



YASEMIN CAN

(Turkia, 1996)

- ◆ Hiru alditan irabazi du Europako Kros Txapelketa.
- ◆ Campaccioko kroseko irabazlea Italian, 2019an.
- ◆ 5.000 eta 10.000 metroko lasterketako Europako txapelduna 2016an.



STELLA CHESANG

(Uganda, 1996)

- ◆ 2018. urteko bederatzigarren denborarik onena 10.000 metroko proban.
- ◆ Laugarren postua Afrikako txapelketan, 2018an.

“Musika, poesia, osasuna eta umorea uztartzen dira ikuskizunean”

▶ NATALIA MELLADO MUSIKARIA

Natalia Mellado musikari elgoibartarrak kontzertua eskainiko du gaur iluntzean, Elgoibarko Herriko Antzokian. *Mi cante sabe a canela y limón* izena jarri dio ikuskizun berriari, eta nolabait esateko, musika eta osasuntsu bizitzeko elikadura aholkuak uztartuko ditu. Musika eta umorea batuko ditu Melladok ikuskizun honetan. Kontzertua 20:30ean hasiko da.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Musika eta osasuna uztartzen dituen ikuskizuna prestatu duzu. Zertan datza?

Musika izango da nagusi, baina betiko musika saioaren baruan, osasun aholkuak tartekatuko ditugu. Adibidez, ardoari buruzko poema bat entzungo da, eta segidan, ardoa protagonista duen abesti bat. Egia esateko, ez da esplikatzen erraza. Ikuskizun berezia da, dinamikoa, alaia, umoretsua eta jendeak oso ondo pasatuko du. Hartu-emanan sortuko dugu publikoarekin, eta nahi duten ikusleek saioan bertan parte hartzeko aukera izango dute. Oso gertukoa da. Barre egingo dute, eta hunkitu ere egingo dira une batzuetan. Musika, poesia, osasuna eta umorea uztartuko ditugu. Ikuskizuna ulertzeko ikusi egin behar da.

♦ Esan daiteke Natalia Melladoren estilo berri bat ikusteko aukera izango dugula?

Bai, esan daiteke. Musikari dagokionean nire ohiko estiloa izango da nagusi, baina egungo musika mota modernoagoek ere izango dute lekua. Musika mota desberdinak tartekatuko ditugu.

♦ Elikadurari buruzko blog bat daukazu. Nondik datorkizu zaletasun hori?

Zortzi urte daramatzat elikadurari buruzko ikastaroak egiten, eta elikadura begano edo barazkijaleen inguruan sakontzen. Ni neu ez naiz barazkijalea erabat, baina zaintzen dut nire elikadura. *comeycanta.com* helbidean elikadura zaintzeko aholkuak eta errezetak argitaratzen ditut. Osasun psikologikoa zaintzeko ezinbestekoa da elikadura zaintzea. Beraz, nire bi zaletasunekin bat eginda prestatu dugu azken ikuskizuna. Urte eta erdi inguru izango da ikuskizun hau taularatzen ari garela, eta ikusleak oso pozik irteten dira aretoetatik. Harrera oso ona izaten ari gara.

♦ Oraingoan Elgoibarren arituko zara, zure etxean. Zer suposatzen du horrek zuretzat?

Ilusio handia egiten dit. Uste dut azkenekoz orain dela lau urte egon nintzela Manolo Escobarren ikuskizunarekin, eta oso pozik



nago berriz ere etxean jarduteko. Norbere lurraldera itzultzeak ilusio handia egiten du. Nire jendeari daukadan onena eskaini nahi diot, eta espero dut gustatzea. 18 urte dira Elgoibartik joan nintzela, baina norberaren sorterria ez da sekula ahazten.

♦ Zein proiektu dituzu orain eskuartean?

Nire senarrarekin batera Arte y Suenas musika eskola ireki dugu Madrilan. Eskola presentzialak emateaz gain, on-line ere eskaintzen ditugu ikastaroak *arteysuenas.com* helbidean. Ilusio handiz dihardugu lanean proiektu berri honetan. Ikusleak ere pozik ikusten ditugu, eta horrek poza ematen digu. Musika eskolez gain, ahalduntze saioak eskaintzen dizkiegu, beraien autoestimua landu eta beldurrak gainditzen laguntzeko. Coach izateko ikasketak ere egin nituen, eta neuk ematen ditut saioak. Aberasgarria da ikustea umeen garapena, bai musikari dagokionean eta baita garapen pertsonalean.

Eguberriei errepasoa

Eguberrietako ospakizun egunak amaitu dira, eta dagoeneko hasiak gara urte berriko dinamikarekin. Hala ere, oroimenean gordetzeko hainbat une harrapatu ditu BARREneko argazki kamerak, eta ondorengo orrialdeetan bildu ditugu. Elgoibarko eta Mendaroko Olentzeroren kalejira, Ekialdeko Errege Magoen desfilea, Gabon Zahar feria... Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.barren.eus

Elgoibar



Elgoibar



Mendaro





Mendaro



Atxutxiamaiarako koordinatzailea behar da

Atxutxiamaiako proiektu ezberdinak koordinatzeko pertsona bat behar du Elgoibarko Izarra Euskaltzaileon Topaguneak

ESKAITZEN DA:

- Eszedentzia baten ordezkapena.
- Fomatzeko aukera.

ESKATZEN DA:

- Begirale titulua edo hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea.
- Ahozko eta idatzizko euskara maila altua izatea.
- Aisia hezitzailean lan-eskarmentua izatea.

BALORATUKO DA:

- Antzerki tekniken inguruko ezagutza izatea.
- Hezkidetzaren inguruko formazioa izatea.
- Parte-hartze tekniken inguruko formazioa jasota izatea.
- Euskaigintzan jardun izana.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA: urtarrilak 11, ostirala

Ubitarte 4, behea - 20870 Elgoibar
www.elgoibarkoizarra.eus webguneko
lan postsa atalean izena eman

BILATZEN DIREN EZAUGARRIAK:

- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatzeko gaitasuna izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.

Elgoibarko haurreskolak MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!



www.haurreskolak.net



Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiek doan sartu ahal izango dira.

Haurreskolan aldi berean ume bat baino gehiago edukita, kuota bakar bat ordainduko da.



Deitu eta informa zaitez!

943 742 141

AEG GARBIGAILUA
8KG L6FBG844



459€

8KG / A+++
ProSense teknologia
Inverter Motorra
1400 r.p.m.

AEG LEHORGAILUA
8 KG T8DBG842



599€

A++
ProSense teknologia
Inverter motorra
Hezetazun sentisorea

BOSCH ONTZI - GARBIGAILUA
SMS25C105E



429€

A++ / 5 Programa
Hatz-marka kontrakoa-inox
EcoSilence Motorra
Karga erdia



Jesus Muguruza Larrañaga

2019ko urtarrilaren 1ean hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Jaio ginenetik hemen gabiltza alde batetik bestera.
Guregandik joaten denik ez da etortzen ostera.
Bi gauza ditut maitagarriak: Jaungoikoa eta euskera,
anaia maiteok saia gaitezen ohitura zaharrei eustera.*




I. URTEURRENA

Margarita Oregui Osoro

2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilaren 12an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



II. URTEURRENA

Pedro Jose Ansola Garate


2017ko urtarrilaren 5ean hil zen, 57 urte zituela.

*Neguko hotzekin joan zinen
hilak bost zituenean
eta tristurak hartu gintuen
bere besoen artean,
baina denbora igaro arren
zaude gure akorduan
Karakatera begira jarri
zenbat momentu gogoan
hantxe aurkitzen zaitugu, Mauxi
eguzkiaren beroan.*

Erre Arte kuadrilla

Doinua: Itsasoari begira





▶ JOKIN URAIN

PRESO OHIA ETA IDAZLEA

'Amaren etxea' liburua argitaratu zuen azaroan Jokin Urainek (Mendaro, 1959), preso enbako testigantzak bildu eta haien bidez sakabanaketak euskal herritar askoren bizitzetan izan duen eraginaz ohartarazteko. Euskarazko eta gaztelarazko bertsiok argitaratu zituzten, baina euskarazkoa Durangoko azokan agortu zen, eta bigarren argitalpena prestatzen dihardute orain.

- AINARA ARGOITIA -

"Oinazea da 'Amaren etxea' liburua goitik behera zeharkatzen duen sentimendua"



◆ Zein da liburuaren abiapuntua?

Herreratik etxera bidean pentsatu nuen senideen joan-etorrien testigantzak bildu behar nituela. Espetxean geundela edozein presok pentsatu izan dugu norbaitez benetan errekonozimendua merezi bazuten horiek gure senideak zirela. Astero-astero, hilabetero, eta urteetan bisitan joan zaizkigunak eta laguntza eman digutenak dira esker ona eta errekonozimendua merezi dutenak. Batetik dago hori, baina bestetik, badago baita ere gure aldiko esperientzia eta bizipenak jaso eta borroka baten kronika idatzi behar bat ere; ondorengoei zerbait uzteko premia.

◆ Ehun bat testigantza jaso dituzu. Zein irizpideren arabera aukeratu dituzu liburura eraman beharrekoak?

Milaka dira espetxeetatik pasatu direnak eta bistan da ezinezkoa dela horien guztien senideen ahotsak bolumen batean jasotzea. Eta bai, aukeratu egin behar izan dugu geuk ere, ezinbestean. Saiatu gara kasuistika ezberdinak jasoz denek esperientziak islatzen liburuan. Hala, ekarri ditugu espetxe urrutietan egon diren

presoen senideen testigantzak, denbora askoan espetxean egon direnen senideen bizipenak, guraso helduen eta motxiladun haurren ahotsak, espetxean gaixorik egon den edo dagoen presoren baten etxeko testigantza, preso duten senidea ikustera espetxera egindako bidaiari istripuren bat izan dutenen ahotsa... ahalik eta kasuistika gehienak bildu ditugu esparru zabalena jaso asmoz.

◆ Zerk harritu edo hunkitu zaitu testigantza horiek guztiak jasotzean?

Askotan pentsatu izan dugu hainbat urtean neke hori sufritu duten senide eta lagunek gorrotoa edo amorrua izan behar dutela barruan, baina testigantzak jasotzerantz joan naizenean ikusi dut beste balore batzuk direla senide eta lagunek dituztenak: beraien arteko elkartasuna, presoekiko maitasuna, itxaropena... Balore horiek ematen diete aurrera jarraitzeko indarra, eta ez beste mota bateko sentimenduek.

◆ Liburuak zertarako balio izatea nahiko zenuke?

Senide horien guztien ahotsa gorde-

tzeko eta gure ondoren etorriko direnek erantzun batzuk topatu ahal izateko, hemen zer gertatu zen galdezka hasten direnean.

◆ 'Amaren etxea' jarri diozu izenburua. Zergatik ama?

Preso egon garenok ikusi dugu espetxeko kabinetan konstantzia gehien erakutsi dutenak amak izan direla: izan preso euren amak, preso ahizpik edo arreba, bikotekideak.. emakumeak, azken finean. Irudi unibertsalik baldin badago, amarena da. Argentinan seme edo biloba galduen bila abiatu zirenak amak edo amonak izan ziren; 36ko gerran preso egondako Luis Rezola Tximelak ere amari idazten zizkion bertsoak Puerto de Santamaria kartzelatik eta Atahualpa Yupanqui kantautore argentinarrak ere bazuen kantu bat ama euskaldunari idatzitakoa, *Mis oinazes izenekoa*. Oinazea da liburu hau goitik behera zeharkatzen duen sentimendua, eta horregatik, hasiera-hasieratik garbi neukan *Amaren etxea* izan behar zuela izenburua.

Bi elgoibartar saritu dituzte bi argazki lehiaketatan

Fernando Calvok eta Jose Ramon Cabrerak argazki lehiaketa bana irabazi berri dute. Calvok Olatua argazki lehiaketaren bosgarren edizioa irabazi du, urpekari-tzako erretratu batekin. Lehiaketan parte hartzeko argazkia Olatua belautzian eginiko egonaldian ateratakoa izan behar zen. Epaimahaia hiru argazkilarik osatu zuten, baina Facebook orrialdean izandako atsegite eta partekatzeko kopurua ere kontuan hartu dituzte. Fernan Calvoren argazkia izan da irabazlea, eta 2019an zehar Olatua belautzian astebeko egonaldia irabazi du. Jose Ramon Cabrerak, bestalde, Galiziako Allariz herrian egiten den argazki lehiaketa irabazi du. Lorategiei buruzko lehiaketa izan da. Herriko lorategi eta berdeguneekiko sentsibilitatea sustatzea du helburu ekimenak, eta bertako lorategiak erretratatzeko da zeregina. Jose Ramon Cabrera Elgoibarko argazki zaletuak ateratako argazkiak jaso du sari nagusia.



Jesus Urizar hil da, Duo Plaentxi eta Basaur taldeetako musikaria

Jesus Urizar musikari elgoibartarra hil zen astelehenean, 69 urterekin. Musikari ezaguna izan da Urizar oholtzan. Duo Plaentxirekin egin zen ezaguna inguruetan, baina ez du talde bakarra izan: 2015ean Basaur taldea sortu zuen Jose Luis Badiola eta Santi Sarasketarekin batera. Kantuak bizi zuen, eta musika latinoamerikarra egin du urteetan.

Andoni Zuluaga 'El Conquis' saioan

Astelehen gauean hasi zen *El conquistador del fin del mundo* saioa. Aurten 33 partaide arituko dira nor baino nor, eta horien artean da Andoni Zuluaga Agirregomezkorta Muniola. Arriagako Muniola baserriko semea da, baina Mendaron bizi da aspaldiko urteetan. Saioan parte hartzeko kastingean argiz beteriko pertsona dela azaldu zuen Muniolak. Lehiakorra ere badela azaldu zuen eta ez dela 20 urteko gazteen artean atzean gelditzea.



Apirilaren 12an iritsiko da Korrika Elgoibar eta Mendarora, goizean goiz

Apirilaren 4an abiatuko da Korrika Garesetik (Nafarroa), eta hilaren 12an iritsiko da gurera, goizean goiz. Mendarora 07:10ean iritsiko da Mutriku aldetik, eta Elgoibarrera, 07:36an. Hor-taz, duela bi urte moduan, Korrikari goizean goiz egingo diote harrera mendarorrek eta elgoibartarrek. Elgoibarko kaleak zeharkatu ostean, Azkoitiarantz jarraituko du bere bidea Korrikaren lekukoak. Apirilaren 14an amaituko da Gasteizen, Euskal Herrian zehar 2.000 kilometro baino gehiago egin eta gero.

"Klika" da aurtengo Korrikaren leloa eta hitz horrekin lotu dute euskararekin konpromisoa hartzea, euskara ikastea eta erabiltzea. Era berean, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i omenduko dute, kulturari, euskalgintzari eta pentsamenduaren alorrean egin zituen ekarpenengatik.



San Anton pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte gaur Ikastolako frontoian



Lagunak Pilota Eskolak San Anton Pilota Txapelketaren 27. ekitaldia antolatuta duen aurten. Joan den barixakuan, urtarrilaren 4an, jokatu zituzten lehen finalerdiak Ikastolako frontoian, eta Alberdi II. eta Apezetxea bikoteak lortu zuten finalerako txartela, promesa mailan. Hala, ia zuten garaipena errepikatzen aukera izango dute urtarrilaren 18an jokatuko den finalean. Osa eta Ibarloza 15 tantoan laga zituzten finalerdietako partidaren. Gaur jokatuko dituzte bigarren finalerdiak, 22:00etatik aurrera. De la Fuentek eta Olidenek Etxaniz eta Gartzia izango dituzte aurkari promesetan. Nagusien mailan, berriz, Labakak eta Telletxeak osatutako bikoteak lortu zuten finalerako txartela aurreko barixakuan, Egigureni eta Balerdiri 22 eta 15 irabazita. Bigarren finalerdian Astiz eta Gaskue Salaberriaren eta Bikuñaren aurka arituko dira gaur, pilota jaialdiko bigarren partidaren.

'Goikoetxe'-k hirugarren egin zuen Gabonetako harri-jasotze Kopan



Gabonetako harri-jasotze txapelketako finala jokatu zuten abenduaren 31n As-teasun. Ondarroako harrijasotzaile Inhar Unanue gailendu zen 90 jasoaldi eginda. Aizarnazabalgo Xabier Peñagarikanok eskuratu zuen bigarren postua, 87 jasoaldirekin, eta Imanol Albizu *Goikoetxe* elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan 82 jasoaldirekin. Ehun kiloko hiru harrirekin aritu ziren lehian: zilindro zaharra, kubikoa, eta bola. Hiru minutuko txandak egin zituzten harri bakoitzarekin.



Elgoibarko hiru talde lehiatuko dira Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketan

Larunbatean hasiko da Gipuzkoako taldekako xake liga. Elgoibarko hiru talde lehiatuko dira: bigarren mailan, Createch Medical taldea, eta hirugarren mailan, ITS Security eta Olan Arkitektura taldeak. Hirurek etxean hasiko dute liga, lehen jardunaldiko norgehiagokak Kultur Etxeko sotoan jokatuko baitituzte bihar (urtarrilak 12), 16:00etatik aurrera. Createch Medical taldeak Zarauzko C. Iriondo taldea izango du aurkari. Hirugarren mailan diharduten Elgoibarko bi taldeek, aldiz, elkarren aurka jokatuko dute. Partidak zuzenean jarraitzeko Sotora joatera animatu dituzte zaleak Elgoibarko Xake Taldekoek.

C.D. Elgoibarren otarraren zozketak baditu irabazleak

Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak eman du argitara zeintzuk diren urtero Eguberrietan zozkatzen duen otarraren irabazleak. Honako hauek dira saritutako zenbakiak: 1.saria: 19030; 2. saria: 30003. Lehen saria Miguel Angel Eizagirik eskuratu du eta Mikel Raulegagak bigarrena. Batak zein besteak jaso dute dagoeneko saria, hainbat produktuz osatutako otarra bana eta dirua, -400 euro lehen sariaren irabazleak.



LANA.....
Eskaerak

Edozein lan egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua.
☎ 632 480 376

Adineko gizonetako zainduko nituzke.
☎ 631 724 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 631 724 921

Adinekoak zaindu edo etxeak garbitzeko prest nago.
☎ 659 513 578

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Orduka.
☎ 631 666 099

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lan-gile moduan aritzeko prest.
☎ 632 265 200

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan.
☎ 632 265 200

PARTIKULARRAK.....

LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditugu. biribiltxoko@gmail.com
☎ 630 055 077 / 666 667 183

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:
18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).
Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.
Iragarkia irertratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:
15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).
Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkia irertratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU
HH 0 (2018an eta 2019an jaiotakoak), otsailtik ekainera
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 14tik 25era




www.elgoibarikastola.eus
943 744441

IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera urtarrilaren 14an, 18:00etan








Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkateen Elkartearen Administrazioaren Erakundeak



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean, unean-uneko presidentek dira erai-kinaren mantenu egokiari dagozkion gestioak egiteko arduradunak. Hortaz, komunitateari dagokion dokumentazio guztia urtero-urtero pasatzen da eskuz, presidentea urtero aldatzen dugulako.

Azkeneko urteotan, ardura hori betetzea egokitu zaien pertsonetako asko ez dira, baina, eraikinean bizi, eta apenas egin den gestiorik. Orain, batzar bat antolatzea goaz eta ez dakigu nor daukan akta-liburua. Jakin nahiko nuke zer egin dezakegun, badirudielako liburua galdu egin dela.

Egun presidente karguan dagoenak idatzi bat aurkeztu beharko du Jabetza-erregistroan akta-liburua galdu dela jakinarazteko. Jabetza Horizontalaren Legea aplikatzen zaien komunitate eta azpi-komunitateetan legez araututa dago honako hau:

- Akta-liburuen eginbideak erabili aurretik egin behar dira. Beraz, zingero da akta-liburu berri bat zabaldu lehengo bete dela ziurtatu arte edo berria zergaitik zabalitzen den argitu arte.
- Eraikina dagoen lekuko Jabetza-erregistratzailearen ardura izango da eginbide horiek egitea.

AHOLKUA: Akta-liburua galduz gero, beste berri bat hasi daiteke, baina beti ere presidentek edota komunitateko idazkariak, aurrez, gertatutakoaren berri komunitateko jabe-kide guztiei eman badie eta hala egin duela jasotzen baldin badu notario aurrean edo Jabetza-erregistroan.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Ander**, zure 6. urtebetetzean. Etxekoen, eta bereziki, Olatzen partez. Ederki pasatu dugu denok.




Zorionak, **Iker!** Gaur 7 urte! Ondo pasa eguna eta patxo pila denon partez, bereziki, Landarren partez.



Sorinak zutaz ere gogoratu dira, **ihintza**. Zorionak, printzesa! Bimuxu potolo Elgoibartik eta Errioxatik.



Zorionak, **Nuhaa!** 9 urte! Jarraitu zorionez betetzen gure bizitza. Asko maite zaitugu, pitxina.



Zorionak, **Intza!** Domekan urtebete gure sinpatikak! Patxo handi bat familiakoen partez.



Zorionak **Telmo** gure pilotariari, gaur 11 urte egin dituelako. Familiakoen, eta bereziki arrebaren eta lehengusuen partez.



Zorionak gure umetxoari, aittittamama eta amama Lurdesen partez.



Zorionak, **printzesa**, astelehen 8 urte beteko dituzulako. Patxo potolo bat denon partez.



Aittitta Jesus joan zaigu, baina izar txiki berri bat jaio da. Ongi-etorri, **Urko**.



Zorionak gure etxeko **printzeari**. Primeran pasa genuen. Muxuak familiakoen, eta bereziki, Alex eta Mikelen partez.



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

IKASGO

ACADEMY

667 261 248

(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com



KALITATEZKO
ATSEDENEAN ADITUAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

%50era arteko beherapenak



RPS 183/12



40.

urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

2019ko kanpaina berezia!

Uzuri Optikak 40 urte bete ditu. Hilean egindako erosketarekin sari baten zozketan sartuko zara. Parte hartu!

► Urtarrileko eskaintza:

VARILUX
BETAURREKO
PROGRESIBOAK 2X1



► Urtarrileko zozketa:

Michael Kors poltsak
(3 poltsa daude)





Uzuri Optika

Aurreko hilabeteko saritua:
Begoña Etxaniz

11 BARIKAKUA

20:30 Kontzertua: Natalia Mellado. Herriko Antzokian.

22:00 San Anton pilota txapelketako jardunaldia. Lagunak taldeak eta Kirol Patronatuak antolatuta, Ikastolako frontoian.

12 ZAPATUA

15:30 Orain presoak Bilboko manifestaziora joateko autobusa. Mendaroko estazioan. Aitz Beltz tabernan erosi behar da txartela.

19:30 Mugertza krosetako parte-hartzailei harrera. Udaletxeko pleno aretoan.

13 DOMEKA

10:00 Mugertza Nazioarteko Krosa. Mintxetan. 12:30ean emakumezko seniorren lasterketa, eta 13:10ean gizezko seniorrena.

14 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: Nire barne komunikazioa. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik tuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.gida

17 EGUENA

10:30-13:30 / 17:30-20:30 Parrokiako jaiotza ikusteko azken eguna. Parrokiako lokalean.

19:00 *Elgoibar 1936. Zentral elektriko-
etako fusilamenduak* liburuaren aurkezpena Elgoibarko udaletxeko areto nagusian.

18 BARIKAKUA

18:00 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Odol emaileen lokalean.

21:30 Bideo foruma: 'Gloria'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 San Anton pilota txapelketako finalak ikastolako frontoian.

SAN ANTON EGUNA Urtarrilak 17, eguna

11:00 Meza Nagusia: San Bartolome parrokiako abesbatzak hartuko du parte.

11:30-14:00 / 16:30-19:30

Umeentzako parkea, Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian.

12:30 San Anton kontzertua. Emudafek antolatuta, Sein saxofoi laukoteak hartuko du parte. Herriko Antzokian.

12:30 Zigilu erakusketaren inaugurazioa. Mufomi Fossil eta Mineralen 25. urteurrenari eskainiko diote aurten erakusketa. Hilaren 26ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
11 BARIKAKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez *Fernandez	Egunez Etxeberria
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Etxeberria
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gabez: 22:00-09:00 La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410	

Zinea (Herriko Antzokian)

'Sobre ruedas'

12 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS
 13 domeka: 19:00
 14 martitzena: 19:00

'Udare erraldoiaren istorio harrigarriena'

13 domeka: 16:30

'El regreso de Mary Poppins'

17 eguena: 19:00
 18 barixakua: 21:30
 19 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS



I. URTEURRENA

Damiana Garate Olañeta

2018ko urtarrilaren 7an hil zen, 99 urte zituela.
 Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
 urtarrilaren 12an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Jose Luis Sarriguarte Garitaonandia


2018ko abenduaren 24an hil zen, 94 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Carlos Enrique Perez Garate

2018ko abenduaren 27an hil zen, 61 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Gure oroimenean bizi zaren artean
 gure bihotzean betiko izango zara.***





Manuel Landa Kortaberria

2018ko abenduaren 30ean hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak




Sebastian Andonegi Gabilondo

2019ko urtarrilaren 4an hil zen, 90 urte zituela.
Haren oroimenez meza izango da, domekan,
urtarrilaren 13an, 10:30ean, Elgoibarko San Pedroko elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Justa Muñoz Gustin

2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 92 urte zituela

***Heriotza ahanzturan dago,
eta gure bihotzetan ez dago ahanzturarik.***

Etxekoak






ROSA Mª PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA



Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaren
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa